1311 Programa «Kanpo Ekintza» finantzatzeko erabiliko dira diru-sarrerok.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko maiatzaren 8an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

## OSASUN SAILA

## Zk-2596

79/2001 DEKRETUA, maiatzaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Elikaduraren Higiene eta Segurtasun Kontseilua sortzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 18.1 artikuluaren arabera, barneko sanitatearen arloari dagokionez, Estatutuaren oinarrizko legeria betearazi eta lege bidez garatzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio. Arlo generiko horri dagokionez, irailaren 7ko 2209/1979 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzten ditu honako funtzio hauek: janariak, edariak eta gizakien elikadurarekin zerikusi zuzen edo zeharkakoa duten produktuak saldu, maneiatu, biltegiratu eta ekoiztearen gaineko sanitate-kontrolak egiteko direnak, beti ere jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badira.

Kontsumitzailearen Estatutuari buruzko azaroaren 18ko 10/1981 Legean ezartzen denez, erabiltzailearen eta kontsumitzailearen eskubideak dira euren segurtasuna eta osasuna zaintzea.

Sanitateari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legean ezartzen denez, sistema sanitarioaren jarduerak eta baliabideak, batez ere, osasuna sustatzeko eta gaixotasunei aurrea hartzeko erabili beharko dira. Eta lege horretako 24., 25. eta 26. artikuluen arabera, osasunarentzako kalte edo arriskurik izanez gero, eskudun organoek jarduera administratibo egokiak burutzeaz gain aurrezaintza neurri egokiak har ditzakete.

Elikaduraren inguruko azken aldiko krisiek, gizartean eragin handiarekin, Europako Batasuneko zenbait

Los fondos se destinarán a financiar proyectos del Programa 1311 «Acción Exterior«.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## N°-2596

DECRETO 79/2001, de 2 de mayo, por el que se crea el Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 18.1 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco confiere a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia de desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica del Estado en materia de sanidad interior. Dentro de esta materia genérica el Real Decreto 2209/1979, de 7 de septiembre transfiere a la Comunidad Autónoma del País Vasco las funciones de control sanitario de la producción, almacenamiento, transporte, manipulación y venta de alimentos, bebidas y productos relacionados directa o indirectamente con la alimentación humana, cuando estas actividades se desarrollan en el País Vasco.

La Ley 10/1981, de 18 de noviembre, sobre el estatuto del Consumidor, establece como derecho del consumidor y usuario la protección de su salud y su seguridad.

La Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad, establece en el artículo 3.1 que los medios y actuaciones del sistema sanitario estarán orientados prioritariamente a la promoción de la salud y a la prevención de las enfermedades y en sus artículos 24, 25 y 26 faculta a los órganos competentes a realizar actuaciones administrativas y a adoptar las medidas preventivas que se estimen pertinentes en el supuesto de riesgos o daño para la salud.

Las últimas crisis alimentarias que han afectado, con gran impacto social, a varios países de la Unión Euro-

herrialde hartu dituzte. Enzefalopatia espongiforme transmitigarriek gizakien osasunarentzako dakartzaten ondorioek eta bai hondakin arriskutsuekin egindako produktuak jatearren jazotako intoxikazioek ere ezinegona sortu dute kontsumitzaileengan, herritarrek sanitate-segurtasunaz duten interesa areagotu egin dute, eta, bestalde, agerian utzi dute: garrantzi handiko egoeretan kudeaketa-bide berriak ezarri beharra eta orobat elikadura-arriskuei aurre hartzeko bide berriak.

Elikadurari dagokionez azken aldian sortu diren alertak direla-eta, osasun arloko agintaritzek, indarreango legeetan aurreikusitako neurriak hartzea baztertu gabe, administrazioek eta eragile ekonomiko eta sozialek parte hartzeko eta koordinatzeko bide finkoak instituzionalizatzea aurreikusi behar da, hain justu ere, jazotzen diren egoerak berehalakoan hobeto ezagutzeko eta haiei erantzun egokiak emateko.

Eta hortaz, beharrezkotzat jotzen da Osasun Sailari aholkuak emango dizkion organo bat sortzea, elikagaien sanitatearen segurtasunaz eta higieneaz arduratu dena, eta, bestalde, gizarteko eragileak, komunitate zientifikoa, ekimen pribatuak eta Erkidegoko eta tokiko administrazioak koordinatuko dituena, beti ere, elikagaiak kontsumitzearekin zerikusia duten osasun arriskuei aurre hartzearren eta sanitate arloko agintaritzek Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien inguruko alertak kudeatzea erraztearren.

Ondorioz, Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 18. artikuluan xedatutakoarekin bat, Osasun sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2001eko maiatzaren 2ko bileran, eztabaidatu ostean, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Sortzea eta atxikitzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Elikaduraren Higiene eta Segurtasun Kontseilua sortzea, elikagaien sanitatearen higiene eta segurtasunaren arloan aholkuak eman eta koordinazio lanak egingo dituena.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Elikaduraren Higiene eta Segurtasun Kontseilua Osasun Sailari atxikitakoa izango da, sail horren egitura hierarkikoan sartua egon barik.

*2. artikulua.–* Helburuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elikaduraren Higiene eta Segurtasun Kontseiluaren helburuak hauexek dira: eraginpeko sektoreek, euren antolakundeen bitartez, parte hartzea elikagaiak kontsumitzearen inguruko osasun arriskuei aurre hartzen, elikagaien inguruan agertzen diren alertetan sanitate administrazioa kudeatzen laguntzea, eta interesatuei eta kontsumitzaileei informazioa bideratzea.

pea, las intoxicaciones producidas por el consumo de productos con residuos peligrosos para la salud y las consecuencias en la salud humana de las encefalopatías espongiformes transmisibles, han generado la alarma entre los consumidores, elevando el interés de los ciudadanos por la seguridad sanitaria de los alimentos, y han puesto de manifiesto la necesidad de establecer nuevas vías de prevención de los riesgos alimentarios y cauces de gestión ante situaciones de especial relevancia.

Ante la aparición de las últimas alertas alimentarias, y sin perjuicio de la adopción por la autoridad sanitaria de las medidas previstas en la legislación vigente, se hace necesario prever la institucionalización de cauces estables de participación y coordinación entre la Administración y los agentes sociales y económicos, con el objetivo de mejorar los niveles de conocimiento inmediato y respuesta adecuada ante las situaciones que surjan.

Por todo ello, se considera necesaria la creación de un órgano que asesore al Departamento de Sanidad, responsable en materia de higiene y seguridad sanitaria de los alimentos, y que facilite la coordinación entre la administración autonómica y local, la iniciativa privada, la comunidad científica y otros agentes sociales, para contribuir a la prevención de los riesgos para la salud relacionados con el consumo de alimentos y a facilitar la gestión por la Autoridad Sanitaria de las alertas alimentarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Consejero de Sanidad y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 2 de mayo de 2001,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Creación y adscripción.

1.– Se crea el Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como órgano de coordinación y asesoramiento en materia de higiene y seguridad sanitaria de los alimentos.

2.– El Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco está adscrito al Departamento de Sanidad, aunque no se integrará en su estructura jerárquica.

*Artículo 2.–* Fines.

El Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria tiene la finalidad de impulsar la participación de los sectores implicados, a través de sus organizaciones, en la prevención de los riesgos para la salud relacionados con el consumo de alimentos, colaborar en la gestión de la Administración Sanitaria en las alertas alimentarias que se presenten y servir de cauce de información para los sectores interesados y consumidores.

*3. artikulua.*– Eginkizunak.

Lehenengo artikuluan zehazten denez, elikagaien sanitatearen segurtasun eta higiene arloan ondoko eginkizunak dagozkio Kontseiluari:

1.– Osasun sailburuaren aholku- eta kontsulta-organoa izatea.

2.– Bere eskumenen barruan proposamenak eta txostenak egitea.

3.– Arloan garrantzi berezia duten arauei buruzko aurreproiektuez arduratzea.

4.– Ekimen pribatuaren eta ekimen publikoaren arteko koordinazioa sustatzea.

5.– Osasun arloko agintaritzak elikagaien inguruko alertetan egin behar duen kudeaketan laguntzea, irizpideak ipiniaz.

6.– Kontseiluan dituen ordezkarien bitartez informazioa sustatzea.

7.– Elikagaien arloko arriskuak hobeto ezagutzeko, ikerketa-ildoak eta estudioak egitea proposatzea; eta elikadura ohitura osasungarrien bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen osasuna hobetzeko ekimenak sustatzea.

*4. artikulua.*– Kontseiluaren antolamendua.

Elikaduraren Segurtasun eta Higiene Kontseiluak Osoko Bilkuraren, lan-batzordeen eta Elikaduren arloko Alertetarako Batzordearen bitartez jardungo du.

*5. artikulua.*– Kontseiluaren Osoko Bilkura.

1.– Elikaduraren Segurtasun eta Higiene Kontseiluaren Osoko Bilkura, lehendakariak, lehendakariordeak eta bokalek osatuko dute.

2.– Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua eta Osasun Plangintza eta Antolamenduko sailburuordea, hurrenez hurren, Elikaduraren Segurtasun eta Higiene Kontseiluko lehendakaria eta lehendakariordea izango dira.

3.– Elikaduraren Segurtasun eta Higiene Kontseiluko bokalak honako hauek izango dira:

a) Osasun Publikoko zuzendaria.

b) Lau bokal, zuzendari maila dutenak, eta ondoko sailburu hauek proposatutakoak direnak: Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak, Garraio eta Herrilan sailburuak, eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak.

c) Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien ordezkari diren hiru bokal.

d) Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostia-San Sebastiángo Udaletako osasun arloko zinegotzigoen ordezkari diren hiru bokal.

e) Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako gainontzeko udalerrien ordezkari diren hi-

*Artículo 3.*– Funciones.

El Consejo, según se define en el artículo primero, tendrá las siguientes funciones en materia de higiene y seguridad sanitaria de los alimentos:

1.– Actuar como órgano de consulta y asesoramiento del Consejero de Sanidad.

2.– Emitir informes y elaborar propuestas en su ámbito competencial.

3.– Conocer los anteproyectos normativos de especial relevancia en la materia.

4.– Impulsar la coordinación entre la iniciativa pública y privada.

5.– Contribuir, con su criterio, a apoyar la gestión que debe realizar la Autoridad Sanitaria de las alertas alimentarias que se presenten.

6.– Promover la información, a través de sus representantes en el Consejo.

7.– Proponer la realización de estudios y líneas de investigación que contribuyan a un mejor conocimiento de los riesgos alimentarios y, en general, promover iniciativas dirigidas a mejorar la salud de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco a través de hábitos alimenticios saludables.

*Artículo 4.*– Organización del Consejo.

El Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria actuará mediante el Pleno, el Comité de Alertas Alimentarias y las Comisiones de Trabajo.

*Artículo 5.*– Pleno del Consejo.

1.– El Pleno del Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria estará constituido por un Presidente, un Vicepresidente y los vocales.

2.– El Consejero de Sanidad y el Viceconsejero de Planificación y Ordenación Sanitaria del Gobierno Vasco serán el Presidente y Vicepresidente, respectivamente, del Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria.

3.– Serán vocales del Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria:

a) El Director de Salud Pública.

b) Cuatro vocales, con rango mínimo de Director, a propuesta de los Consejeros de Industria, Comercio y Turismo, de Agricultura y Pesca, de Transporte y Obras Públicas y de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

c) Tres vocales en representación de las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

d) Tres vocales en representación de las concejalías del área de salud de los Ayuntamientos de Bilbao, Vitoria-Gasteiz y Donostia-San Sebastián.

e) Tres vocales en representación del resto de los municipios de los Territorios Históricos de Bizkaia, Álava

ru bokal, Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatutakoak.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Ostalarien Federazioaren ordezkari bat.

g) Elikagaien banaketa egiten duen sektorearen –Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoenaren– ordezkaritza handieneko erakundeen ordezkari bi.

h) Elikagaien banaketa egiten duen sektorearen –Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoenaren– gainontzeko erakundeen ordezkari bat.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza erakunde handienen hiru ordezkari.

j) Kontsumitzaileen erakundeen (EAEn kokatutakoen) hiru ordezkari.

k) Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzako funtzionario bat, elikagaien higiene arloan ardurak dituena eta idazkari eginkizunak egingo dituena.

4.– Goiko zerrenda horretan izenarekin identifikatutako entitateek eta erakundeek Kontseiluko lehendakariari jakinarazi beharko dizkiote izendatu dituzten titularrak eta ordezkoak. Gainontzeko erakundeen eta entitateen ordezkari diren Kontseiluko kideak, Osasun sailburuak izendatuko ditu, haiek proposaturik.

5.– Osasun sailburuak egindako izendapenak lau urterako izango dira, nahiz eta epe hori luza daitekeen. Hala ere, Kontseiluan izango dituzten ordezkariak, euren artean adostuta izendatu behar dituzten erakunde eta entitateei dagokienez, izendapenak urte baterako egin daitezke, hala, erakunde eta entitate guztien ordezkariak txandakatzea ahalbidetuz.

6.– Elikaduraren Segurtasun eta Higiene Kontseiluko kide izateak ez dakar ezertiko ordainsaririk jasotzeko eskubiderik, baina horrek ez du eragotziko: indarreango arautegiarekin bat datozen indemnizazioak eta dietak jasotzea.

7.– Osasun sailburuaren agindu batez —Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko denaz— emango dira aditzera Kontseiluko kideen izenak.

8.– Lehendakariaren gonbitea dela medio eta hitz egiteko eskubidez baina botoa ematekoa barik, elikaduraren segurtasun eta higienearen arloan itzal aitortua dutenak izan daitezke Kontseiluan.

*6. artikulua.–* Elikagaien inguruko Alertetarako Batzordea.

1.– Elikagaien inguruko Alertetarako Batzordeak honako helburu hauek izango ditu: herritarren osasunean eragina izan dezaten elikagaien inguruko krisiak kudeatzeko laguntza eman eta lankidetzan jardutea Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin, eta, bestalde,

y Gipuzkoa, designados por la Asociación de Municipios Vascos-Euskadiko Udalen Elkartea (E.U.D.E.L.).

f) Un representante de la Federación de Hostelería del País Vasco.

g) Dos representantes de las Organizaciones representativas del sector de la distribución de alimentos con implantación en la Comunidad Autónoma.

h) Un representante del resto de Organizaciones del sector de la alimentación con implantación en la Comunidad Autónoma.

i) Tres representantes de las Organizaciones Agrarias más representativas de la Comunidad Autónoma.

j) Tres representantes de las Organizaciones de Consumidores con implantación en la Comunidad Autónoma.

k) Un funcionario de la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad con responsabilidad en el área de higiene de los alimentos, que actuará como secretario.

4.– Las instituciones o entidades identificadas de forma nominal en la relación anterior comunicarán al Presidente del Consejo la designación de sus titulares y suplentes. Los miembros del Consejo en representación del resto de instituciones y entidades serán nombrados por Orden del Consejero de Sanidad a propuesta de aquéllas.

5.– Los nombramientos realizados por el Consejero de Sanidad se harán por un periodo renovable de cuatro años. No obstante, en el caso de que varias instituciones o entidades deban designar de común acuerdo a sus representantes en el Consejo, podrán realizarse los nombramientos para un solo año, de tal forma que se facilite la rotación de los representantes de todas las citadas instituciones o entidades.

6.– La condición de miembro del Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria no dará derecho a percibir retribución económica alguna, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que les correspondan con arreglo a la normativa vigente.

7.– Por Orden del Consejero de Sanidad, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, se dará publicidad a la composición nominativa del Consejo.

8.– A invitación de su Presidente, podrán asistir al Consejo, con voz y sin voto, personas de reconocido prestigio cuya actividad tenga relación con la seguridad e higiene alimentaria.

*Artículo 6.–* Comité de Alertas Alimentarias.

1.– El Comité de Alertas Alimentarias tendrá como objetivo colaborar con la Dirección de Salud Pública y asesorar a la misma en la gestión de las crisis alimentarias con incidencia en la salud pública que se presenten, sirviendo de cauce de coordinación para el ejerci-

osasun arloko agintaritza indarreango legeriak esleitzen dizkion eskumenez balia dadin, koordinazio-bideak gauzatzea.

2.– Osasun Publikoko zuzendaria izango da Elikagaien inguruko Alertetarako Batzordeko burua, eta beherago zehaztutako erakunde eta entitateen aldetik Kontseiluaren Osoko Bilkuran ordezkari direnek osatuko dute:

a) Nekazaritza eta Arrantza Saila, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

b) Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostia-San Sebastiángo Udalerrien ordezkariak.

c) Udalbatzen ordezkarietariko bat.

d) Kontsumitzaileen Erakundeen ordezkarietariko bat.

e) Eraginpeko elikagai-sektorearen ordezkari bat.

*7. artikulua.–* Lan-batzordeak.

Kontseiluaren Osoko Bilkurak bidezko deritzon bezainbeste lan-batzorde era ditzake. Sortzeko erabakiaren bitartez, zehaztu beharko dira osaerak eta zein laneremurako eratzen diren.

Eratzeko arrazoi izan zen funtzioa bete ondoren, desegin egingo dira lan-batzordeak.

*8. artikulua.–* Kontseiluaren Osoko Bilkuraren funtzionamendu-erregimena.

1.– Elikaduraren Segurtasun eta Higiene Kontseiluaren Osoko Bilkura, gutxienez, sei hilabetetik egingo da, lehendakariak hartarako deialdia egin ondoren.

Deialdia hamabost egun natural lehenago egin beharko da, premiazko kasuetan bost egun lehenago egin daiteke. Deialdiari aurreko batzarraren akta eta aztergaiak batu beharko zaizkio. Kideek gutxienez 48 ordu lehenago egindako eskabideak kontuan izanda atondu beharko dira aztergaiak.

2.– Lehendakariak hartarako egindako deialdiarekin, lehendakariaren ekimenez edo kideetariko herenak arrazoiak azalduz egindako eskabidez, ezohiko batzarrak egin daitezke, deialdia egiten denetik harako hilabeteko epearen barruan beti ere.

Ezohiko batzarretako aztergaiak helarazi beharko zaizkie Kontseiluko kideei, batzarra baino gutxienez zazpi egun natural lehenago.

3.– Elikaduraren Segurtasun eta Higiene Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartu beharko ditu kontsultaorgano honen funtzionamendu-arauak.

*9. artikulua.–* Elikagaien inguruko Alertetarako Batzordea.

1.– Dekretu honek Elikagaien inguruko Alertetarako Batzordeari esleitzen dizkion berariazko eginkizunak kontuan izanik, Osasun Publikoko zuzendariak

cio por la autoridad sanitaria de las competencia que le asigna la legislación vigente.

2.– El Comité de Alertas estará presidido por el Director de Salud Pública, y estará integrado por quienes actuaren en el Pleno del Consejo en representación de las siguientes instituciones y entidades:

a) Los Departamentos de Agricultura y Pesca y de Industria Comercio y Turismo.

b) Los representantes de los municipios de Bilbao, Vitoria-Gasteiz y Donostia-San Sebastián.

c) Uno de los representantes de las corporaciones municipales.

d) Uno de los representantes de las Organizaciones de Consumidores.

e) El representante concerniente al sector alimentario afectado.

*Artículo 7.–* Comisiones de Trabajo.

El Pleno del Consejo podrá constituir cuantas Comisiones de Trabajo se consideren oportunas. El acuerdo de creación determinará la composición y el área de trabajo para la que se constituirán dichas Comisiones.

Las Comisiones de Trabajo se disolverán una vez cumplida la función para la que fueron constituidas.

*Artículo 8.–* Régimen de funcionamiento del Pleno del Consejo.

1.– El Pleno del Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria se reunirá en sesión ordinaria convocada por su Presidente, como mínimo cada seis meses.

La convocatoria se realizará con una antelación mínima de quince días naturales, que se reducirá a cinco en los casos de urgencia. A la misma se acompañará el Acta de la reunión anterior, así como el orden del día, el cual se fijará teniendo en cuenta las peticiones de los demás miembros que hubieran sido formuladas con, al menos, 48 horas de antelación.

2.– Podrá reunirse, además, en sesión extraordinaria convocada por el Presidente, a iniciativa de éste o a petición razonada de al menos un tercio de sus miembros, debiendo efectuarse la reunión en el plazo máximo de un mes desde la convocatoria.

El orden del día de las reuniones extraordinarias será enviado a los miembros del Consejo con una antelación mínima de siete días naturales.

3.– El pleno del Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria aprobará las normas de funcionamiento por las que se rija este órgano consultivo.

*Artículo 9.–* Régimen de funcionamiento del Comité de Alertas Alimentarias.

1.– En atención al especial cometido que el presente Decreto asigna al Comité de Alertas Alimentarias, este órgano será convocado por el Director de Salud Pú-

egingo ditu batzorde hori batzartzeko deialdiak, Euskal Autonomia Erkidegoko sanitate-egoeraren arabera beharrezko den maiztasunez egin ere.

2.– Dagoen premiaren arabera eta hartutako erabakiak eragingarriak izan daitezen, deialdian finkatutako epearen barruan egin beharko da batzarra, zeina laburra izan daitekeen, baina ez hiru ordu baino laburragoa. Hartarako, Elikagaien inguruko Alertetarako Batzordeko kideei helarazi beharko zaie deialdia, berri emate hori berehalakoan eta egiaz burutzea bermatzen duen edozein bitarteko erabiliaz, hain zuzen ere.

3.– Edozelan ere, Elikagaien inguruko Alertetarako Batzordea eratu arren, indarreango araudiak betetzearren, osasun arloko agintaritzak derrigorrezko diren osasun-neurriak har ditzake.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ordezko arauak.

Dekretu honetan eta, halakorik bada, barne funtzionamendu-arauetan aurreikusi gabekoari dagokionez, kide anitzeko organoei buruzko arauen bitartez eraenduko da Elikaduraren Segurtasun eta Higiene Kontseilu hau. (Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. Tituluaren II. Kapituluan ezarritakoak dira kide anitzeko organoei buruzko aipatu arauak).

*Bigarrena.–* Garapena.

Dekretu hau betearazteko eta garatzeko beharrezko diren xedapenak emateko eskumena esleitzen zaio Osasun sailburuari.

*Hirugarrena.–* Indarrean izatea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko maiatzaren 2an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

blica con la frecuencia que lo requiera la situación sanitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– En función de la urgencia existente, y para garantizar la eficacia de las decisiones que se adopten, la reunión se realizará en el plazo que se establezca en la convocatoria, que podrá ser extraordinariamente breve, aunque nunca inferior a las tres horas. A tal efecto, la convocatoria será trasladada a los miembros que integran el Comité de Alertas Alimentarias por cualquier medio que garantice la comunicación efectiva e inmediata.

3.– En cualquier caso, la constitución del Comité de Alertas Alimentarias no impedirá la adopción por la autoridad sanitaria de las medidas sanitarias que fueren inaplazables en cumplimiento de la normativa vigente.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Supletoriedad.

En todo lo no previsto en el presente Decreto y en su caso en las normas de funcionamiento interno, el Consejo de Seguridad e Higiene Alimentaria se regirá por las normas relativas a los órganos colegiados establecidas en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.–* Desarrollo.

Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Tercera.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de mayo de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.